

NOLAKOA DA NIRE FAMILIA?

ELIZA ETA PARROKIA

Zalantzarik gabe, odoleko senitateetan bezala, eguneroko gertuko hartu-emanek, ohiko bategiteek, elkartzeko informalek, konpartitutako kezka eta poztasunek dakarte ahaidetasunezko harreman hori benetakoa izatea. Horrela, parrokiara maiz joanez gero, Jainkoaren familia, odolekoa bezala, benetako bihurtzen da (ez dugu une hau 0-6 urtekoen inguruko batzarren edo familia mezen propaganda egiteko aprobeixatuko, nahiz eta... gidoiak hori eskatu!)



JESUSEN BENETAKO ANAI-ARREBAK: BEHARTSUAK

Pero Baina, are eta zailagoa zena: Jesusek, odoleko familiaren lokarriak -garai hartan, oso zabalak zirenak- hausteko ausardia erakustez gainera, bere garaiko erlijioak ezarritako muga zorrotzagoa hausteko ausardia erakutsi zuen. Pertsona asko eta asko baztertzeko giza-erakundeak eta Jesusek harreman estua zuen beraiekin. Izan ere, Jainkoaren Hitza betetzea ez da igandez mezetera joatea -hori bakarrik ez, behintzat-, "maite ezazue elkar nik maite izan zaituztedan bezala" delako hori gauzatzea baizik. Horregatik Jesusek Aitagurea irakatsi eta praktikatu zuen.



Bada guretzat kristau familiarik? Sentitu duzu noizbait lagun hurkoa zure anai-arreba dena?



Oraintxe bertan gure familia nortzuk diren galdetuko baligute, zalantzarik gabe erantzungo genuke... ala ez? Nire familia, neure haurra da, goizez janzen dudana, eskolara joateko motxila prestatzen diodana, eta neure familia izango da adinean aurrera egin eta bakarrik jantzi dadinean ere. Baita ni gabe atera eta larunbat arratsaldez supermerkatuan ardo merkea erosiko balu ere, orduan ere, neure familia litzateke. Nire familia, nire seme-alaben aita edo ama da. Eta neure gurasoak. Eta aiton-amonak?, jakina. Eta beste aiton-amonak, nire seme-alaben familia dira?, ere neurea ere bai? Nola izango da amaginarreba nire ama bezain senitarte? Eta herriko koinatua? Hartu-eman gehiago dut, barren, lankidearekin! Familiaren kontu hau, neuk uste baino korapilatsuagoa da.

Eta zer esan, bananduta dagoen nire adiskide, anai-arreba edo auzotarrak, seme-alabak eta beste bikotekide ohi bat, aita eta ama eta aitaginarreba eta herriko koinatua... dituen beste bikotekide bat duenaz... Beharbada noizbait harritu gara geure buruaz, benetako senitarte, delako ezkontza batean ondoan eseri zitzaidan hirugarren lehengusina baino gehiago, nire gauzak, denbora, eguneroko ardurak konpartitzen dituen delata pentsatu izanagatik. Izan ere, badira odol-lotuz gainera, elkartzen gaituzten beste lotura batzuk ere. Azkenean, senitarte, geuk nahi dugun besteko handia ala txikia izango da, edo hobeto esanda, inguruabarrek aurrez aurre jartzen digutena bezain handia ala txikia eta bihotzak dioskuna bezain zabala ala murrizta.


JESUSEN FAMILIA

Dirudienez, behinola Jesusek ere egin zuen hausnarketa hau.

“Joan zitzaizkion Jesusi bere ama eta anai-arrebak, baina jendearen jendez ezin iritsi ziren berarenganaino. Eta jakinarazi zioten:



anai-arrebak dituzu kanpoan, zu eta Jesusek, berriz, esan zien: ez zintuz gertatu nik ama eta anai-arreba: hitza entzun eta betetzen



ditugu Jesusen bizitzako inguruak: ak... inkortasuna zen nagusi, hara eta hona zebilen, ez zuen hipotekarik sinatu, ez zen ezkondu eta ez zuen seme-alabarik izan. Hala moduzko lagunartea izan zuen eta, denboraldi luzez hara eta hona ibili ondoren aurkeztu zitzaion kontu hau. Erantzuna zorrotza izan zen: “ez lehengusu propioa, ez herriko senidea, nire senitarte, niretzat garrantzitsuena den horretan nirekin bat datorrena da”. Odolaz gainera, beste gauza batzuek ere lotzen gaituzte.

Bataioaren bitartez, Jesusena bezalako familian sartzen gara: hobeto esanda, Jesusen familian sartzen gara. Jainkoaren hitzak, hau da, Jainkoaren Maitasunaren hitzak, gizon eta emakumeen arteko maitasunean, azken muturreraino eramandako maitasunean islatzen den Jainkoaren Maitasunaren hitzak lotzen gaitu. Jainkoaren egundoko maitasun honek, azaldu ezin dugun eta frogatzea zaila den maitasun honek anai-arreba egiten gaitu.